Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Miren Eguren Larreategi

Soraluze, Gipuzkoa (1928-2017)



Aurkibidea

Biografia



Altamira baserrian jaiotakoa, urtebete inguru zuenean San Andres auzoko Guenetxetxo baserrira joan ziren bizitzera. Baserriko lanak eta bizimodua zuzen-zuzenean ezagutu ditu eta gogoz kontatzen ditu orduko bizipenak. Ezkondu ondoren Arrieta baserrira joan zen bizi izatera.

Zintak

SOR-047

- **Proiektua**: Deba Eskualdeko Ahotsak - Soraluze

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data**: 2006-07-06
- **Iraupena**: 63 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Ezozi bailaratik San Andres auzora

- **Erref**: SOR-047/002
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:01:10. **Bukatu**: 00:02:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Ezozi bailaratik, San Andres auzoko Guenetxetxo baserrira joan zen 14 hilabete ingururekin. Ezkondu ondoren berriz Ezozi auzora itzuli zen; Arrieta (Arritxa) baserrira. 1928an jaiotakoa, urtarrilaren 20an.

Transkripzioa
- Orduan, hor bertan jaixo ziñan, oseake, auzo honetan?
- Bai, ni hortxe jaixo nitzan. Ta gero hortik juan nitzan, hau Ezozi baillia da ta San Andres baillera, Guenetxetxo basarrira.
- Hori zer, umetan?
- E?
- Umetan?
- [Obretan]?
- Umia ziñala?
- Bai, hamalau hillebete edo esaten dabe neukazela. Gure aiztiak esaten dau ni han sukaldian oiñutsetan ta amamak “Horri umiorri oiñetakuak! Horri umiorri oiñetakuak!” esaten zotsela.
- Orduan, hemendik San Andres auzora…
- Hemendik hara San Andres baillera juan [nitzan]. Ta gero handikan ezkondu nitzan berriro hona.
- Oseake, buelta jatorrira?
- Bai, atzera hamen…
- Ze urtetan jaixotakua zara? Ze fetxatan?
- Veintiochuan.
- Veintiochuan.
- Veinte de enero, San Sebastian egunekua.
- Ene! Beira… Eta, bueno, Altamira basarriko gauza gitxi gogoratuko dozuz.
- Nik bai, nik harrazkeroko ikusi dittutenak hor.
- Baiña gero, bueno, San Andres auzoko basarri hartako kontuak bai, ezta?
- Bai, oin be… ointxe, bai.
- Basarrixa zelakua zan edo zelan gogoratzen dozu?
- Basarrixa, ba, zahar samarra zan erosi zanian. Zahar samarra zan, baiña han hazi giñan, behintzat. Eta gero erre ein zan basarrixoi ta gero basarrixa ein eben. Ta oin basarri barrixa dauke einda.

2. Guenetxo baserria erre zenekoa

- **Erref**: SOR-047/003
- **Iraupena**: 0:00:25. **Hasi**: 00:02:30. **Bukatu**: 00:02:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Familiako giroa. Guenetxo baserria nola erre zen azaltzen du.

3. San Andres auzoko ermita

- **Erref**: SOR-047/004
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:02:55. **Bukatu**: 00:03:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
San Andres auzoko ermitan kanpaia jotzen zen hodia zetorrenean. Kanpai klase desberdinak: albakoa, angelusa, hildakoen kanpaia...

Transkripzioa
- Haura han zeak garbitzera etorri zanien... porke hor San Andresen kanpaia dao. San Andres baillia, San Andres auzuan, oin jaixak eitten dian tokixan. Ta harek joten zeban hodia zanian kanpaia; eta angelusa, goixian albokua, ta danak, e, joten zittuen bertan auzoko batek, Artetakuak. Eta pasatzen eban, ba, garixa ta artua ta... auzua pasatzen eban kanpaiana, hildakuen kanpaia be joten zeban ta dana ta, ba, pasatzen zeban hori. Hori emoten jakon hildako bakoitzena ta etortzen zan ta berak hartu bizkarrien ta eruten zittuan danak eta kanpaiori.

4. Kanpaiak jotzen zituzten ekaitza zetorrenean

- **Erref**: SOR-047/007
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:07:40. **Bukatu**: 00:09:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
San Andres auzoko ermitan kanpaia jotzen zen hodia zetorrenean. Kanpai klase desberdinak; esanahia. Su-kanpaia; albakoa... Beheko baserriko (Arteta) gizonak jotzen zuen kanpaia.

Transkripzioa
- Orduan, hori, etxiak edo basarriren bat erretzen zanian kanpaiak jotzen zittuen han San Andresen?
- Bai, kanpaia joten zeben. Zeozer, zeozen [zera], hode haundixa edo egualdi txarra pentsatzen [zeben]... Esaten [doste] lehengo baten batek: “Zu —beno, Pil-pil-ak ipintzen eban— San Andresko kanpaiak ze esaten zeban. Haura azertatzen dabenandako afarixa zeuan”. Esan notsan: “Ene!” “Han, han, han, han” esaten ebala San Andresko kanpaiak. Ta “Bai, hori esaten zeban”. Baiña afarixa jan ta gero neri ekarri zosten Pil-pil-a ta kitto. Eta bai hori esaten zeban, bai, “Han, han”. Eta entzunda nao ni Gilanian ez dakit nungo biajantia tabernan, esaten ebala eze: “Hi, hori kanpaiori, ze signifikatzen jok horrek? Horrek ze jakik? Gu beste jakik eta!”. [Zelan da], Gilanian zeoze hartu, urten ebanerako jo-ta goixan hasi ta beheraiñokuan baldakadia botatako moduan eurixa ta kristona [ein zan]. “Enee! Ez najuan asko esango!”. Baiña batzuk gehixao entenditzen dabe beste batzuk baiño, ba, ta... Ez dakit, ba. Itxuria.
- Eta kanpaiak ze izaten zian, diferentiak? Ba, ez dakit, hode-kanpaia eta...
- Bai, hode-kanpaiari emoten zotsen kaleko...
- ... edo... su-kanpaia diferentiak zian?
- Bai. Su-kanpaia...
- Igarri eitten zenduen segiduan, sua edo hodia edo...
- Bai, “suan kanpaia da”, zeaittikan kalekuari be bueltia osua “tin-taun, tin-taun” emoten zeban kalekuak be ta [hari erantzuten zotsan] bestiak be. Ta bestela: “Tan, tan, han, han, han, han” esaten eban. Bai. Baiña...
- Esaten dozu angelusa be jotzen zebala, ez? Kanpaiak. Angelusa edo...
- Angelusa be bai, goizian albakua be bai; danak joten zittuan harek.

5. San Andres auzoko kanpaiak

- **Erref**: SOR-047/009
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:09:50. **Bukatu**: 00:10:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
San Andres auzoko kanpaiak. Hildakoena; aingeru-kanpaia. Hildakoa gizonezkoa edo emakumea zen jakiten zen kanpaien arabera. Egun, gauza hauek erdi-galduta daude.

Transkripzioa
- Orduan e, sasoi baten ez e, hango kanpaiak e inportzia haundixa zekan.
- Oin ezebez. Bai bai, hango kanpaia edo auzuan baten bat hil dalako, auzokueri joten zotsen e. Hoixe, auzuan baten bat hil da,ene, baten bat hil da. Aingeru-kanpaia be diferente jotzen zeben. Aingerua, umia hiltzen zanian be diferente.
- Zer zan, finaua holan tlin?
- Beste, beste tono bat emoten zotsen.
- Eta gero bazeuan e desberdinttasunik ba ez dakit gizonezkua bazan hildakua edo emakumia?
- Klaro!
- A bai?

- Bai. Zazpi emakumiai tta beratzi gizonezkuai jotzen zeben. Kalian, oin be egongo da hori, kalian.
- Jarraitzen dau e...
- Ez,hor San Andresen ez dau jarraitzen.
- Baina edo kalekuak e jarraitzen dau diferentziatzen emakumia edo gizonezkua?
- Bai, nik hamendik entzun be ez dot eitten baina esaten dau loibiak e baten bat hil da, emakumia da kanpaia. Itxuria distingitzen da oin be.
- Orduan segidu dau.
- Horrek hola segiduko dau.

6. Antzinako bizimodua; eskolara oinez

- **Erref**: SOR-047/011
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:11:05. **Bukatu**: 00:12:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Herriko eskolara egunero oinez. Herrira saltzera ere astoz jaisten ziren. "Lehengo bizimodua zan, e, motza, motza...". Antzinako bizimodua. Lehenago eskola gutxi; baina gurasoen garaian, oraindik gutxiago.

Transkripzioa
- Eta hor e, San Andres Ballian, bueno ba umetan eta eskolara e nora juaten ziñan e herrira bertara edo?
- Bai herrira danok, hemenguak be bai.
- - Ez zeuan auzo eskolarik edo...
- Ez oingo moduan, ez ez ,ez oingo moduan kotxian e, taka-taka taka-taka abarkak eta galtzak jantzitta. Etorri tta juan ta juan ta etorri tta. Ala! Gu be bai, astuakin kalera egunero-egunero-egunero juaten giñan, plazarakua, esniak, danak ipinitta, astuakin. Danak astuakin, ez zeuan e pistarik eta, pistia eiñ arte. Pistia ein zanian ba, baten batek kotxia ta goraakuak bazeukan ba pasaizian edo . Beti tta holan. Baiña lehen e, lehengo bizimodua zan motza, motza.
- Motza zegaittik esaten dozu?
- Ba motza esaten dot e, ez zeuala adelanto ta zerik. Ez zeuala oingo moduko adelanto ta zerik. Oin ba jentia be espabillau eskolia be gehixao, lehen eskolia be ba, gutxi, gure gurasuak eta eskolia, guk gutxitxo baiña harek gutxiao.
- Bai ,e?
- Nere aittak firmatzen ez zekixen.
- Ez.
- Harek be zazpi anai-arreba jaixo zian hor ta, bizi izeten nehikua lan!

7. Gurasoen jatorria

- **Erref**: SOR-047/013
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:12:45. **Bukatu**: 00:14:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Gurasoak eskolara oso gutxi joandakoak. Aita baina oso buru onekoa. Aita, Altamira baserrikoa; ama, Mendotz-koa.

8. Eskola kontuak; kongregazioak

- **Erref**: SOR-047/014
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:14:10. **Bukatu**: 00:16:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:
Herriko eskolan ibilitakoa; zer ikasten zuten. Arrosarioa errezatzen zuten egunero. Zigorrak. Gerora klase partikularretara ere joan zen, maistrarengana. Orduan gehiago ikasi zuen. Mutilentzako maristak egon ziren. Kongregazioak: Hijas de María eta luistarrak. Abadeek eta erlijioak orain baino garrantzi gehiago gizartean.

9. Erlijioaren eragina gizartean; aldaketak

- **Erref**: SOR-047/015
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:16:05. **Bukatu**: 00:17:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Egungo kontuak; gauzak nola aldatu diren. Dotrinan, infernurik ez dagoela irakasten dutela orain... Bere garaian infernua, purgatorioa... Erlijioaren indarra; bekatuak...

10. Umetako bizimodua; eskolara nahi baino gutxiago

- **Erref**: SOR-047/016
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:17:45. **Bukatu**: 00:19:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Eskolan zer ikasten zuten. Sarritan ardizain ibili behar zen eta eskolara joan ezinda gelditzen zen. Bordatzen ere ikasten zuten eskolan. Familia askotan garrantzitsuagoa izaten zen mutilari eskola ematea neskari baino.

11. Eibarrera lanera

- **Erref**: SOR-047/017
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:19:00. **Bukatu**: 00:19:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Aitaren arreba batek "Eperra" taberna zuen Eibarren. Eskola amaitutakoan bertara joaten zen hilabete batzuetan izebari laguntzera.

12. Jaunartzeak, ezteiak

- **Erref**: SOR-047/019
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:20:10. **Bukatu**: 00:21:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:
Garai batean jaunartzeak baserrian ospatzen ziren. "Eztegua". Ezkontzak ere baserrietan ospatzen ziren. Soinujolea.

13. Garai bateko ezkontzak nolakoak izaten ziren

- **Erref**: SOR-047/022
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:23:05. **Bukatu**: 00:24:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak

Laburpena:
Ezteiak nolakoak izaten ziren. 10 eguneko bidaia: Donostia, Zaragoza, Iruñea... Lan handia bazkaria etxean egitea. Gauzak asko aldatu dira.

14. Medikua baserrietara oinez

- **Erref**: SOR-047/025
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:27:40. **Bukatu**: 00:29:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:
Medikuak oinez ibiltzen ziren baserriz baserri. Medikua; praktikantea. Sasimedikuak.

15. Emakumearen bizimodua baserrian

- **Erref**: SOR-047/028
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:32:10. **Bukatu**: 00:33:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:
Emakumeak baserrietan; haurdunaldietan nola ibiltzen ziren. Baserrietako lanak: gari-jotzeak; garotan, lurreta... "Asto lan asko..!".

16. Ume jaioberria; ohiturak

- **Erref**: SOR-047/029
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:33:20. **Bukatu**: 00:34:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
Umea izan eta ondorengo egunetan bete beharreko ohitura zaharra. Elizan sartzea umearekin. Amaberriari zer ematen zitzaion jateko...

17. Jaioberriak baserrietan

- **Erref**: SOR-047/031
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:34:55. **Bukatu**: 00:36:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:
Ume jaioberriak baserrian. Oholarekin egindako kotxetxoa. Baserrietako gizonak ez ziren gehiegi arduratzen ume txikiez.

18. Etxeginak; aurrerakuntzak baserrian

- **Erref**: SOR-047/033
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:39:20. **Bukatu**: 00:40:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:
Etxeginak. Baserrietako bizimodua; aurrerakuntzak. Komun zaharrak nolakoak izaten ziren...

19. Lixiba; garbitasuna

- **Erref**: SOR-047/034
- **Iraupena**: 0:03:45. **Hasi**: 00:40:35. **Bukatu**: 00:44:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:
Arropa garbitzeak nola egiten ziren, non... Lixiba nola egiten zuten.

20. Ehunezko arropak; garbitasuna

- **Erref**: SOR-047/035
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:44:20. **Bukatu**: 00:45:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:
Ehunezko arropak. Lixiba egiteko txinbo xaboia erabiltzen zuten.

21. Baserriko bizimodua

- **Erref**: SOR-047/037
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:46:20. **Bukatu**: 00:49:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
Sukaldeko lurra nolakoa zen; nola garbitzen zen. Ur-korrontea baserrian. Beheko sua. Gelatza, burdin-galdara. Hasiera batean denak ontzi beretik jaten zuten. Ardoa, sagardoa, pattarra...

22. Taloa, morokila

- **Erref**: SOR-047/039
- **Iraupena**: 0:05:00. **Hasi**: 00:50:00. **Bukatu**: 00:55:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:
Burdin-galdara zertarako erabiltzen zen. Taloa eta esnea; morokila, aia...

23. Elikadura kontuak

- **Erref**: SOR-047/040
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:55:00. **Bukatu**: 00:57:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:
Elikadura baserrian; zer jaten zuten. Ortuan zer landatzen zuten. Bakailaoak estimazio handia izaten zuen baserrietan. Txitxarroa, sardina, antxoak... Garizumako bijilia.

24. Gabonetan zer jaten zen

- **Erref**: SOR-047/041
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:57:40. **Bukatu**: 00:59:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Gabonetan zer jaten zuten. Intxaur-saltsa, konpota... Turroia. Auzo batetik bestera ere joaten ziren soinujolearekin.

25. Elikadura kontuak

- **Erref**: SOR-047/042
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:59:10. **Bukatu**: 01:00:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Jatekoen inguruan ohiturak nola aldatu diren. Lehenago, gari-ebaten, letxuga azukrearekin jaten zuten.

26. Elikadura kontuak

- **Erref**: SOR-047/044
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 01:00:35. **Bukatu**: 01:01:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Jatekoen inguruko azalpenak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-11-15

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com